

BERRIGARA

31. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1997, maiatzak 30



UDARI BEGIRA

Udako Kirol Eskola

Kirola eta euskara batera



MITSUBISHI
MOTORS

KIA KIA MOTORS

*Ekainetik aurrera, Deba Garaiko
zerbitzu ofiziala ARRASATEN duzu*



HONDA
AUTOMOBILAK

MENDIOLA

Araba etorbidea, ARRASATE
Tf. 79 20 30

UGARTE

AROSZTEGIA

ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan, 1 (Barruti) BERGARA.
Telefona eta faxa: 76 54 91



egizabal

Oinetakoak eta poltsak

Betikoak!
Lau belaunaldiren
bermea dugu.



Ferrerias, 9 • ARRASATE
79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA
76 12 28

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxe: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkartea.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Iñaki Iturbe

Publizitatea:

Kristina Romero

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Maripí Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Azaleko argazkia:

Javier Pedro Fdez. Ferreras

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.500 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

RUFINA OLASAGASTI

Udaleko Kultur Gestorea

- San Martzialgo erromeriako programa zehaztuta al dago?

- Horretan gabilta baina oraindik programa osatzeko dago. Iazkoaren antzekoa izango da baina, nobedade bezala, aurten Los Incansables Hernaniko txaranga etorriko da uztailaren 6ko erromerira. Iaz txaranga baten beharra zegoela ikusi zen eta, pare bat urtez txarangarik gabe izan ondoren, aurten horiek ekarriko ditugu. Programako beste ekitaldiak datozen egunetan zehaztuko ditugu, baina, esan bezala, aurreko urteetako ekitaldiak izango dira.

- Aurten ere mahaiak alokairuan jarriko dituzue?

- Bai, San Martzialeko mahaiak ekainaren 16tik



aurrera alokatu ahal izango dira, 1.500 pezetan mahai bakoitza. 110 bat mahai jarriko dira alokairuan eta momentuz ez dugu gehiago ekartzeko asmorik. Bestalde, San Martzialen jarrita dauden mahaiak txukundu egin beharko dira ekainaren 23rako, fetxa horretan kondiziotan ez dauden mahaiak kendu egingo dira eta.

“San Martzialerako mahaiak ekainaren 16tik aurrera alokatu ahal izango dira”

I T U R R I O N E T I K

San Joxepe jubilatuen elkarteak Hamabostaldi Kulturala prestatzen

San Joxepe jubilatuen elkarteak urrian izango den Hamabostaldi Kulturalaren antolaketari ekin dio. Urriko bi astetan hitzaldiak, mahai-inguruak, irteerak eta beste hainbat ekitaldi antolatuko dira Jubilatuetan eta San Joxepeko kideak antolaketa lanetan hasi dira jadanik. Horrela, hamabostaldia iragarriko duen kartela aukeratzeko lehiaketa deituko du San Joxepe elkarteak. Partaideek, jubilatuek gaur egungo gizartean bete dezaketen lana adierazi beharko dute karteletan eta irabazleak 75.000 pezetako saria jasoko du. Aipatutako kartel lehiaketan Gipuzkoa osoko artistek parte hartu ahal izango dute.

E S A N
D U T E

“Aurrekontu aldetik limite batzuk dauzkagu eta patrozinadore fuertirik ez izatean, ezin dugu Europako probetan konpetitzen sartu. Espainiako Txapelketako proba batean ditugun gastuak 500.000 pezeta inguruak dira. Bidaia, alojamendua, mekanikoak, remolkea mugitu, erroberak, gasolina...etabar ordaindu behar dira. Diru-sariak konpentsatzen duten? Jaizkibelen irabazteagatik 180.000 pezeta eraman nituen. Eta diru horrek neumatiakoak ordaintzeko ere ez du balio”

AITOR ZABALETA
Kotxe pilotua
EL DIARIO VASCO

“Binakako txapelketa jokatzeko ilusio bikoitza izan da niretzat. Txapelketan sartzea eta ondoren, Aitorrekin edo Jose Marirekin jokatzeko nahi nuen. Ea nola erantzuten dugun, txapelketa motza baita eta bikoteak ere nahiko orekaturik suertatu dira. Lehiaketa zaila da edozein huts oso garesti ordaintzen delako”

JOKIN ETXANIZ
Pilotaria
EL DIARIO VASCO



DONNIE BRASCO

Eguakitza: 22:30
 Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
 Astelehena: 19:30
 (Ikuslearen eguna).



TRANVIA A LA MALVARROSA

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ **Mike Newell**
 zuzendariak (*Cuatro bodas y un funeral*) benetako gertakizunetan oinarritutako filmea errodatu du oraingoan. *Joe Pistone* (**Johnny Depp**) FBIko agenteak gangster baten itxura hartu eta *Lefty Ruggiero* (**Al Pacino**) mafiosoaren bandarekin tratutan hasiko da. Euren ekintzetan parte hartu aurretik hainbat proba gainditu beharko ditu *Pistonek* eta berehala *Leftyren* konfiantza irabaziko du...

▼▼ **Manuel Vicent**
 idazlearen nobelan oinarritutako filme honetan **Liberto Rabal, Juan Luis Galiardo** edo **Ariadna Gil** ditugu protagonista nagusiak. **Jose Luis Garcia Sanchez**ek zuzenduta eta 1950eko hamarkadako Valentzian kokatuta, gaztaroko azken udan **Manuelek** (**Rabal**) biziko dituen sentsazio majikoak azaltzen zaizkigu.

Deiak

▼ **1942**an jaiotakoen lagunarteko eguna ekainaren 7an; Setan meza Santa Marinan eta 9etan aforia Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea Mizpildi, Lonbide edo Edelen.

▼ **Udaberriko kontzertua** domekan 11:30etan Frontoian. Gazteen Bandarekin 10:45etan kalejira.

▼ **Aritzeta** abesbatzak Mozarten *Misa Brevis*a eskeiniko du domekan 11etan San Pedron.

▼ **Argazkiak**. Chiapaseko argazkiak Nahikari tabernan.

▼ **Jon Balentziagaren** margoak eta eskulturak Arrasateko Aita Menni Ospitalean ekainaren 20ra arte.

▼ **Erakusketa**. Fernando Arenaza eta Juanjo Altunaren margoak Donostiako Olaetxea galerian.

Ogia

▼ **Domeka 1:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 30:** Camacho.
- ▼ **Zapatua 31:** Puy.
- ▼ **Domeka 1:** Puy.
- ▼ **Astelehena 2:** Guallar.
- ▼ **Martitzena 3:** Estella.
- ▼ **Eguaztena 4:** Mozos.
- ▼ **Eguena 5:** Camacho.

▼▼ **Toki Ederreko jaiak.**

Gaur 11etan Gozategirekin dantzaldia; bihar zapatua 11etan ginkana, 4retan mus txapelketa, 5etan kukañak, 7etan buruhaundiak, 8etan haur tanborrada, 10 t'erdietan suzko erroberak eta 11etan Trabukorekin dantzaldia. Domekan Aritzeta eta Xamatx; 12etan, luntxa jubilatuentzat eta 14:30etan herri bazkaria.



KALEGOI, 19 ☎ **76 64 07**

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriadarako pinturak
- Paper margotzak
- Mokitak eta tapizatuak



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

30 millones de gilipollas

Sobradun antzerki taldearen emanaldia

Sobradun talde gas-teiztarrak "30 millones de gilipollas" lana eskeinitu du bihar zapatua gaueko 10:30etan Novedades aretoan. Herminio Bolaextra komiki pertsonaian oinarritutako "Herminio y Miguelito" (1994) aurreko laneko umore garratzaren bidetik, egoera hipotetiko bat landu dute oraingoan Sobraduneko kideek futbolzaleen kritika egiteko (hortik titulua): Espainiak eta Brasilek Munduko Futbol Txapelketako finala jokatzen duten bitartean, hiri haundi bateko kaleak hutsik daude eta partidaren berririk izan ez duten zenbait pertsonaia selebre elkartuko dira antzezlanen zehar.

Hiru aktore

Gidoia Eloy Beato aktore eta antzerki idazleak eta Mauro Entrialgo marrazkilari eta gidoilariak landutakoa da eta, Roberto Cuestaren zuzendaritzapean, Gorka Aginagalde, Ion Gabella eta Iñaki Rodaballo arituko dira aktore lanetan. Aktoreek eguneroko bizitzan oinarritutako hainbat pertsonaia gorpuztu dituzte eta



Taldeko kideen esanetan zientzia fikziozko lan bat da zapatuan Novedadesen eskainiko dutena.

Zapatuko emanaldirako sarrerak 800 pezetan jarriko dira salgai Novedadesen

bakoitzak paper bat baino gehiago landu behar izan du; erabateko garrantzia duen partidu hori telebistan ematen ari diren bitartean, kalean, estafadorea, liburu saltzailea, hanka beltzak, karteroa, turista, emagaldua, homosexuala edo pizza banatzailea elkartuko dira. Era berean, antzezlaneko ordu t'erdian zehar, eguneroko gaien umorezko errepasoa emango zaie. Gazte zein helduei zuzenduta, Sobradunen bigarren lan honek arrakasta handia lortu du publiko zein kritikaren aldetik.

Ion Gabella Sobraduneko kidearen ustetan, "zientzia fikziozko obra bat dela esango nuke. Jendea telebista ikusten dagoela suposatzen da eta bien bitartean kalean hainbat istorio gertatzen dira. Argazki konprometitu batzuk dira gertakizun guztien ardatza eta gutako bakoitzaren zenbait pertsonaiaren larruan sartzen gara denbora gutxian. Arropaz aldatzen zaren bitartean chip-a ere aldatzen duzu eta horretarako asko entsaiaitu beharra dago. Gero, piskanaka-piskanaka mania eta baliabide guztiak ikasten zoaz".



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**

**Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94**

LARREA

TABERNA

**Kale Barren, 17
ANTZUOLA**

Apaiza eta dantza

Joan zen igandean, Altos Hornoseko eleizan, senar-emazte bikote batek bere urrezko eztaiak ospatzen zituztela eta, dantzari bikote batek fandango eta arin-arin bat dantzatu zuten euren izenean. Ez, ostera, aurreragoko buru-hausterik pasa gabe.

Larunbatean (bezperan) bertako apaizari gure asmoen berri eman genion, eta meza ondoren eleizan dantzatu ahalko zuten galdetu genion. Bere esanetan dantza hauek folklorikoak izatearren, ezin dira eleiza barruan dantzatu, aureskua soilik... Gainera, eleizan dantzatzeko hau, moda hau, berri ez omen zaio batere gustatzen, aurrez inoiz ez ohi da ezagutu eta.

Aitzakia pila honi gusto txarreko komentario hau eraintzi zion: "Ademas, ni que vi-niese una autoridad".

Elizpeko lurrak eta inguruko zuhaizpeek dantzarako eskaintzen duten baldintza eskasagatik horrenbeste insistitu genion; halaber, berak gomendatu bezala erratz bat jiratu, lurretik apur bat harriak kendu eta eleiza-aren aurreko eskilaretan dantzatu zuten Ion eta Maitek.

Familiartekoen partez eskerrik beroenak dantzariei jarritako borondate onagatik. Argi dago borondate piska bat nahikoa dela asmo onenak betetzeko, ez ala apaiz jauna?

N. LARRAÑAGA

Aupa Bergara

Ez dira garai onenak Bergara Kirol Elkartearentzat, batez ere futbol sailarentzat. Kirol elkarte honetako saskibalo, eskubalo eta pilota sailtako kirolariak nahiko ondo ibili dira aurtan, eta futbol saileko talde batzuk ere bai (infantilak eta neskak, esate baterako), baina talde nagusiak denboraldi kaskarra egin du eta Preferentetik Primera regionalera jeitsi da.

Domekan Ipintzan izan ginen eta Bergarako jokalariek, duten guztia eman zutela aitortu behar da. Gainera, partidua ia irabazi ere egin zuten, epailearen eta kontrarioen jokabidea oso ona izan ez bazen ere. Jokalari eta zaletuei txaloak eman nahi dizkiet erakutsitako portaerarengatik.

Hala ere, eta hasieran idatzi dudan bezala, ez dira garai onenak herriko kirol elkarte nagusiarentzat. Lehen futbol taldea mailaz jeitsi da, Agorrosin ez dago egoera onen eta zuzendaritza batzordeak kluba laga nahi du. Futbol taldeari dagokionez, esan behar da, aurtan oztopo ugari izan dituela: taldea gazte samarra zen eta denboraldian zehar entrenatzaile aldaketa izan dute. Horrela zaila da lan ona egitea. Bestalde, elkarreko buruek azken lau urteetan egindako lanaren ondoren, nekatuta, kluba laga nahi dutela esan dute. Txarrena da kluba inork ez duela hartzerik nahi, eta pena da.

Horregatik, gutun honen bitartez, eskatu nahi nieke klubeko buruzagiei, beste urte batez jarraitzeko. Hurrengo denboraldi gogorra izango da eta komenigarria izango litzateke buruzagiak, jokalariek eta afizioa se-

kula baino batuago egotea, taldea berriz ere Preferentera igotzeko. Eta datorren urtean ea jende berria agertzen den elkarte gidatzeko.

J. AGIRRE

Futbol Txapelketa

Txapelketa honen antolatzaileek bertan parte hartuko duzuen guztioi jakinarazi nahidizuegu, aurreko edizioetan zenbait jokalarik arbitroekin izan duten portaera txar-arengatik, oso zaila izan zaigula epaile edo linier lanetan jarduteko prest dagoen jendea aurkitzea.


Hori dela eta, txapelketa jokatu ahal izateko beren laguntza emateko prest agertu den jende horri ahal den guztian laguntzea eta eurenaganako errespeturik haundiena izatea eskatzen dizuegu.

Antolakuntzakook oso garbi dugu, eta hala jakinarazi diegu arbitro edo linier lanetan jardungo dutenei, noizbait partiduren batean problemak sortzen hasten badira, partidua bertan behera utziko dela.

Era berean, oso garbi utzi nahi dugu, ez dugula inongo zalantzarik izango kolaboratzeko prest ez dauden jokalarik edo taldeak txapelketatik botatzeko; eta txapelketa bertan behera uztea ere erabakiko dugula, arazoa behin eta berriz errepikatzen bada.

TXAPELKETAKO ZUZENDARITZA BATZORDEA

Tiira biraka



UNAI AZKARATE

Bideo emanaldiak

Kultur Etxeko Islada bideo gelak bi bideo emanaldi antolatu ditu datorren eguen eta eguakitzerako (ekainak 5 eta 6). Eguenean, 19:30etan Kultur Etxean, Orkesta Sinfonikoaren 10. urteurrena ospatzeko, iazko Pazkuetan Udal Pilotalekuan Orkesta Sinfonikoak eskaini zuen kontzertuan jasotako irudiak ikusi ahal izango dira. Bideoak ordubete inguruko iraupena du eta bertan The Lion King opera ikus daiteke, besteak beste. Eguakitzean, toki eta ordu berean, berriz, "70eko hamarkadako irudiak" izeneko bideoa eskainiko da. Roman Larrañagak Bergarako Kultur Ekintza elkartearen enkarguz 70eko hamarkadan Super 8 zine formatoan hartutako irudiak agertzen dira bideoan. Bi emanaldietarako sarrera doan izango da.



Narvaizako depuradoratik zikinkeria isuri zen Deba ibaira apirilaren azken egunetan.

Deba ibaira zikinkeria isuri dute Bergarako bi enpresak

Azkenaldian Deba Ibaira hondakinak isuri dituzte herriko bi enpresatik. Martitzen honetan San Antonioko Movilla lantegitik fuel-olioa isuri zen eta apirilaren 23an, Udaltzainek jasotako txosten batean azaltzen denez, Meko-laldeko Narvaizak duen depuradoratik zikinkeria isuri zen errekarara.

Martitzenean goizeko 8etan ohartu ziren udaltzainak Movillatik fuel-olioa isurtzen ari zirela. Lantegiko galdaretatik isuri ei zen fuel-olioa. Hasiera batean olio mantxa San Antonio inguruan agertu bazen ere, korrontek errekan behera eramán

zuen eta eguerdi aldean Bideberri inguruan ikusi zitezkeen olio mantxak. Udaltzainek ezin izan dute zehaztu zenbat fuel-olio isuri zen, baina isurketa haundi samarra izan zen, olio mantxak nabariak zirelako.

Bestalde, Narvaizako depuradoratik zikinkeria errekarara isurtzen ari zirela apirilaren 23an ohartu ziren udaltzainak eta txosten batean jaso zuten. Alfonso Alonso udaltzainburuak Berrigarari adierazi dienez, gutxienez bi egunetan zikinkeria errekarara isuri zen. "Kasualidadez obartu ginen, bertatik pasatu eta usain txarra ze-

goela konturatu ginen. Bertaratu eta depuradoratik errekarara zikinkeria txorro bat isurtzen ari zirela ikusi genuen. Horrelako kasuak detektatzea zaila izaten da, Deba erreka oso zikin dagoelako, baina isurketak haundiak direnean errekan igartzen da" esan digu udaltzainburuak.


Udaltzainek argazkiak atera zituzten eta txostena egin zuten. Bildutako informazio guztia Jaurlearitzako Garraio eta Herrilan Sailera bidali da. Udaleko gonbernu taldeak erabaki du gaiaren inguruan erabakirik ez hartzea Jaurlearitzatik erantzuna jaso arte.

HILDAKOAK

- Elias Garcia Lopez**
Maiatzak 22, 67 urte.
- Nikolas Etxaniz Unzueta**
Maiatzak 24, 70 urte.
- Jesus Murgía Lopez de Araia**
Maiatzak 26, 74 urte.

JAIOTAKOAK

Epaitegian huelgan daudenez, aste honetan ere ez digute jaiotakoei buruzko informaziorik eman.



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefonoa: 76 10 65, faxa: 76 11 40

Moda desfilea

Ipintza Institutuko 2. BBB mailako ikasleek moda desfilea antolatuko dute zapatu honetan ikastetxeko areto nagusian, ikas bidaira joateko dirua biltzeko. Bi pase izango dira: arratsaldeko 5:30etan lehenengoa eta 8:00etan bigarrena. Sarrerak 500 pezetan jarriko dira salgai takilan (aurrez, 400 PTA).

Epaitegian huelgan

Bergarako epaitegiko funtzionarioak huelgan daude maiatzaren 12az geroztik, euren soldata Jauriaritzako beste funtzionarioenekin parekatzea eskatzeko. Greba dela eta, Bergarako epaitegian hainbat zerbitzu ez dira eskaintzen, baina epaiketa batzuk egin dira, epaile, idazkari eta fiskalek ez dutelako grebarik egin.

Mariaren Lagundiako ikastolaren jaia

Domekan Mariaren Lagundia ikastolaren jaia ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dira ikastetxean. Goizeko 10etan etxaflero jaurtiketa eta meza izango dira; ondoren, hainbat kirol jarduera eta kukainak. Eguerdiko ordubatean, osera, paella lehiaketa izango da eta, ondoren, etxeko tartak zozketatuko dira. Arratsaldeko 4:30etan kukainak txikiengat, jarraian marrazki lehiaketa eta bukatzeko karaokea. Arratsaldeko 6:30etan sari banaketa egingo da eta jai egunari amaiera emateko dantzaldia izango da 19:00etan.

Musika Eskola

Musika Eskolan datorren ikasturterako matrikula egiteko epea zabalik izango da ekainaren 2tik 20ra bitartean.



Telefonikako sarrerako atea ixten dietelako daude haserretuta Alargunen elkartekoak.

Alargunen elkartekoak haserre Seminariora sartzeko atea dela eta

Ikastolako zuzendariak ez du komentariarik egin nahi izan

Begarako Alargunen elkartekoak haserre daude Inazio Arregirekin, Aranzadi Ikastolako zuzendariarekin, Seminarioko patioa sartzeko Telefonikako sarrera giltzaz ixten duelako. *“Seminarioko patioa sartzeko bi ate daude: Ibargaraikoa, kotxeak sartzeko moduko ate haundia, zabalik egoten dena, eta Telefonikako ate txikia, Aranzadi Ikastolako zuzendariak nahi duenean ixten duena. Ikastolakoek ezezik, haurtzaindegikoek, Psikopedagogia gabinetekoek eta guk geuk ere erabiltzen dugu ate hau eta ez dugu ulertzen bestea beti zabalik dagoen bitartean, hau zergatik ixten duen. Eskola orduetan ixtea ulergarria da, baina eskola orduetatik kanpo ez, beste arrazoi batzuen artean hau ez delako*

ikastolarena estatuarena baizik” esan digu Nieves Beistegik, Alargunen elkarteko ordezkariak.

Atea ixteko mekanismo automatikoa jarrita dago eta Alargunen elkartekoek badute atea zabaltzeko giltza, baina askotan ezezagunek nahita izorrratu egiten dute eta ezin izaten dute giltzarekin zabaldu. *“Arregik Pazkue-tan atea giltzaz itxi egin zuen eta lehenengo egunean ganberroek apurtu egin zuten. Jai guztietan atetik sartu ezinda egon gara eta Ibargaraitik sartu behar izan dugu. Hori oso arriskutsua da guretzat, gaztetxoak baloiarekin jolasean ibiltzen direlako”* diosku Nievesek. *“Bestalde, haurrentzat ere oso arriskutsua da, atea itxita egotean goitik sartzan abalegintzen direlako eta min hartzeko arriskua izaten dutelako”.*

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

Gaztetxoan arteko I. Olinpiadak antolatuko ditu Jardunek udan

11-14 urte arteko gaztettoentzat, uztailean izango dira

Jardunek Gaztetxoan arteko I. Olinpiadak antolatuko ditu uztailean zehar, aurten 6. mailan, DBH 1 eta DBH 2 egin dituztenentzat. Olinpiadak ekainaren 30ean (astelehena) hasiko dira eta uztailearen 24an emango zaie amaiera herri bazkari batekin.

Nekane Gabilondok, Jarduneko dinamizatzaileak esan digunez, *"neguan zehar Gartzela Zabarreran ibili direnei, eta baita ibili ez direnei ere, udan ere ondo pasatzeko aukera eman nahi diegu. 11-14 urte bitarteko neska-mutikoentzat uztailean zehar ez da gauza askorik egoten eta euren arteko barremanak sendotzeko asmoz, bainbat jarduera antolatzeko erabaki dugu"*.

Olinpiadak taldeka jokatuiko dira eta gutxienez 4 taldek eman beharko dute izena Olinpiadak aurrera ateratzeko. Taldeak mistoak izan

daitezke eta talde bakoitzean gutxienez 6 lagun eta gehienez 10 arituko dira. Antolatzen diren jarduerak guztietan parte hartzea ezinbestekoa izango da; talde bat bi jardueretara agertuko ez balitz, deskalifikatuta geratuko litzateke.

Honako jarduerak hauek antolatuko dira: hockeya, herri jolasak, play back txapelketa, futbol berezia, patata tortilla, e.a. Astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira jarduerak; horietatik 2 egunetan txapelketak jokatuiko dira (iluntzeko 7etatik 9etara) eta bestean egun osoko irteerak egingo dira.

Izena emateko Gartzela Zaharrera joan behar da, 2.500 pezeta ordaindu beharko dira pertsonako (Gartzela Zaharreko karneta dutenek 2.000) eta taldearen izena eman beharko da. Txapelketan taldeen brusekin aurkeztu beharko dira parte hartzaileak.



Neska-mutiko gaztettoek primeran pasatzeko aukera izango dute Olinpiadei esker, uztailean zehar.

Elosuko Otabak

Elosun Otaba jaiak ospatuiko dira astebukaeran. Zapatuan arratsaldeko 4retatik aurrera Plater Tiraketa eta txokolatada izango dira; gaueko 9etatik aurrera, berriz, bertso afaria Gorrotxagi eta Lazkanorekin eta txiste

kontalariak. Ondoren, Xafre eta Zaharrarekin erromeria. Domekan, goizeko 11etan herri meza izango da eta ondoren, pilota partiduak (Benjaminetan: Julen eta Joseba Muguruza, Eneko Muguruza eta

Gotzon Lizarralderen aurka; Kadete mailan: Ander Muguruza, Azkoitiko Aspiazuren kontra).

Arratsaldeko 5etan, ostera, auzo eta herri arteko herri kirolak: sokatira, txingak, harrijasotzea eta lokotx biltzea; ondoren, zezenak, poniak eta basurde harrapaketa.

Egun guztian zehar Xafre eta Zaharra trikitilariak arituko dira. Astelehenean, azkenik, hildakoen aldeko meza izango da eguerdiko 12etan; arratsaldeko 3etan, auzo bazkaria eta arratsaldeko 6etan auzokoentzat jolasak. Iluntzeko 8:30etan, bukatzeko, afaria. Egun guztian zehar Laja eta Landakanda soinujoleekin erromeria izango da.

Bost kilo txuleta

Bedelkarreko harakinek astero bost kilo txuleta zozketatzen dituzte euren bezeroen artean. Dagoeneko bi zozketa egin dituzte eta hirugarrena astelehenean zozketatuko da. Astelehenero itsuen elkarteak egiten duen zozketan saritutako zenbakiaren azken lau zifrekin bat egiten duen txartelari egokituko zaio saria. Orain arte egin diren bi zozketetan hauek izan dira zenbaki sarituak: 9.958 (berde koloreko txartela) eta 8.867 (arrosa kolorekoa).

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79



Pello Zabala

Frailea eta eguraldi gizona

Joan zen asteko tenporak direla eta, Pello Zabala Arantzazuko fraile eta Euskadi Irratiko eguraldi gizonarengana jo dugu aurtengo uda nolakoa izango den jakiteko. Zabala, uda beroa iragarri digu.

- **Tenporen arabera zelako uda izango dugu aurten?**

- Tenporak joan zen asteazken, ostiral eta zapatuan izan genituen eta hiru egunotan hego haizeak jo zuen. Azken 15 egun hauek ere horrelakoak izan dira eta beraz eguraldi beroa izango da udan. Tenporetan izaten den haizearen arabera izaten da eguraldia eta haizeak hegoaldetik jo duenez, eguraldi ona izango dugu datozen hilabeteetan. Iaz, berriz, itsasoaldetik jo zuen eta abuztu negargarria izan genuen. Joan zen urtekoaren kontrakoa izango da aurtengo uda. Hala ere, egunez zerua garbi izango bada ere, beroaren eraginez lainoak sortu eta

ekaitzen arriskua izango da. Baina plaia edo piszinara joateko egun aproposak izango dira.

- **Noiz izaten dira tenporak?**

- Tenporak asteko egun beretan izaten dira beti: asteazken, ostiral eta zapatuan. Neguan, eguberriaren aurreko asteko egunetan; udaberrikoak Garizumako lehendabiziko astean; udakoak Pentekoste ondorengo hurrengo astean; eta, azkenik, udazkenekoak, irailko hirugarren astean. Negukoa eta udazkenekoak ez dira aldatzen baina beste biak bai, Pazkuaren arabera. Elizak esaten du Pazkua eguna noiz den eta hori aldakorra izaten da urtetik urtera.

- **Zuk zeuk tenporei kaso egiten diezu eguraldi iragarpenak egiteko?**

- Ez, eguraldi iragarpenak egunerokoak izaten



"Trumoi lainoak ere izango ditugu udan".

direlako. Normalean mapak erabiltzen ditut, Madrilen prestatzen dituztenak eta beste herrialdeetako meteorologia institutuen datuak ere kontutan hartzen dituztenak. Mapak fidagarriagoak dira baina horiek irakurtzen eta tokian tokiko egoerara egokitzen jakitea behar beharrezkoa da.

- **Negua eta udaberria zelakoak izan dira aurten?**

- Arraroak. Horrenbeste denbora euri oso gutxi-rekin izan gara; hodei

gutxi, goiak garbi, hego haizeak ere bestetan baino gehiago jo du... Arbolak ere hilabete lehenago heldu dira, dena aurreratu da eta hori ez da batere normala. Bestetan baino negu eta udaberri sikua-goak izan ditugu.

- **Eta uda ere izerditan igaroko dugu...**

- Ez dakit nola moldatuko garen, bero larriekin sufritu egin behar. Nafarroaldetik, ekialdetik haizeak jotzen badu behar bada ez da euririk izango baina hegoaldetik jotzekotan trumoi lainoak ekarriko ditu ziurrenik. Beroa? Etxea berotzen denean gaizki baina onena frigorifikoa gertu izan. Badaezpada...

"Tenporetan haizeak hegoaldetik jo duenez, uda berotsua izango dugu aurten"

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

Ekologia

Ihartutako zuhaitzak

- San Martzialetan plaka batzuk jartzen hasi zarete zuhaitzetan. Zein da horren helburua?

- Iharturik dauden zuhaitzen enborretan jartzen ditugu plakak. Horren helburua zera da: hildako egurraren garrantzia ezagutzera ematea eta San Martzialen aurkitzen diren gaztainondo zaharren enborrak errespetatzeko eskatzea. Udalak horren aldeko erabakia hartu zuen aspaldi, baina jakitera ematea erabaki dugu oraingoan.

- Zein da hildako egurraren garrantzia?

- Gizakiaren manejarik gabeko basoetan hildako egurra etengabe sortzen da: zuhaitzak hiltzen direlako, haizeak eta elurak zuhaitzak botatzen dituelako edo adarrak erortzen direlako. Baso naturaletan hildako egurraren bolumena benetan altua izaten da eta ondorioz, bizidun asko bizi da hildako egurrari lotuta: hongoak, intsektu asko, hegaztiak, ugaztunak... Hemen, zuhaitzak zahartu baino lehen moztzen dira egurra aprobeztatzeko eta bestetik, eroritako egurra ere etengabe jasotzen da, hildako egurrak inguruan bizirik dauden zuhaitzei kalte egingo dielakoan (okerreko ustea). Ohitura hauen ondorioz, European kontserbazio arazo handiena duen ornogabe-tal-

dea hildako egurretan bizi den animalitxoena da, espezie asko desagertutzat ematen direlarik. Badirudi hongo eta gorol-



IÑAKI IRIZAR
(Biologoa)



“Iharturik dauden arbolen egurra ahal den neurrian mantendu eta errespetatu egin behar da”



San Martzialgo gaztainondo zahar baten enborra eta bere plaka.

dioen espezie asko ere asko gutxitu dela.

- Zein berezitasun dute San Martzialeko enbor zaharrek?

- Hildako egurrari loturiko biodibertsitatea gutxituz doa Europa guztian. Arazo hori konpontzeko bidea, hildako egurra ahal den neurrian mantendu eta errespetatzea da, eta hori da hain zuzen ere San Martzialen egitea erabaki dena. Bestalde, enbor zahar hauek estetikoki ederrak direla ezin dezake inork ukatu. San Martzialen gaztainondo zahar asko dago eta horrek balio berezia ematen dio inguru horri.

- Ezagutzen duzue honen antzerako ekintzarik?

- Bai, naturagune babestuetan eta herrialde aurreratuenetan basoen zati bat ikutu gabe (eta hildako egurra atera gabe) lagatzea erabakitzen da, erreserbak egiten dira. Baina, hemen bezala, beste leku askotan basoen esplotazioan horrelako erreserbak sortzea zaila da eta, gutxienez, hilik aurkitzen diren enborrak babestea erabakitzen hasiak dira leku batzuetan. Gure inguruari dagokionez, San Martzialekoa nahiko proposamen aurrerakoia da.

- Bestelako asmorik baduzue?

- Gure asmoa enbor hauek ezagutzera eman eta beraienganako errespetua eskatzea da. San Martzial egunean bereziki errespetatzea eskatu nahi genuke, ez ditzagun erabili gauzak zintzilikatzeko, etabar. Bigarren helburu bat, beste mendi batzuetako enbor zaharrak babestea izango litzateke.

Kirola Euskaraz programa duela lau urte jarri zen martxan. Artxiboko argazkian, Elgoibarren antolatutako ekitaldi bateko irudia.



Euskara eta kirola

Udako Kirol Eskola uztailean

Deba bailarako udaletako euskara eta kirol zerbitzuek bultzatutako Kirola euskaraz programaren barruan, Udako Kirol Eskola jarriko da martxan aurtengo uztailean. Euskal Herriko entrenatzaile eta kirolarien formazioa hobetu nahirik, astebetetz, ikastaro ezberdinak izango dira eta bailarako olinpiada hauetan 200dik gora kirolari eta monitore izango direla espero da.

K irola euskaraz programa orain lau urte jarri zen martxan. Deba bailarako udaletako euskara eta kirol zerbitzuek indarrak batzeko premia ikusi eta lanari ekin zioten. Gaur egungo gizartean kirolaren eragin soziala gero eta haundiagoa denez, euskara eta kirol zerbitzuek arlo horretan euskaraz aritzea ezinbestekotzat jo zuten. Helburu horrekin martxan jarri zen Kirola euskaraz ize-

neko programa. Programa honek bi helburu nagusi ditu: euskarazko materiala sortzea alde bategatik eta entrenatzaile eta kirolarien formazioa hobetzea bestetik.

Euskarazko materiala sortzeari dagokionez, hainbat material argitaratu da dagoeneko. Bailarako kirol eta euskara zerbitzuek deitutako bekei esker, Futbol entrenatzaile eta Kirol entrenamenduaren oinarriak izenburuko liburuak, entrenado-

re eta irakasleei zuzendutako fitxa didaktikoak (rugbya, saskibaloia eta eskubaloia buruzkoak orain arte) eta Sasoian aerobic bideoa kaleratu dira. Fitxen kasuan, kirol bakoitzeko 30 fitxa inguru atera dira, praktika eta teoria jorratuz. Bailarako ikastetxe eta kirol taldeetan doan banatu dira fitxak eta, era berean, salgai daude (Bergaran Kultur Etxean eskuratu daitezke). Igeriketa eta arte martzialen fitxak irtetzear

daude eta, uda ostean, futbolaren eta atletismoaren gainekoak argitaratuko dira.

Kirol eskola

Aurtengo udan, esan bezala, proiektu berri bati ekingo zaio, Udako Kirol Eskolari alegia. Iñaki Ugarteburu Bergarako Udaleko kirol teknikariak azaldu digunez, "antolatzen ditugun ikastaro solteak egun gutxi batzutan konzentratzea nahi izan dugu oraingoan eta, alde batetik, irakasle, entrenatzaile eta eskola-kiroleko monitoreei zuzendutako ikastaroak izango dira eta bestetik kirolarientza-

"Astebetez, tekniko zein kirolariei zuzendutako ikastaroak emango dira eta kirol bakoitzaren alderdi ezberdinak aztertuko dira". UGARTEBURU

ko ikastaroak ere bai. Lehendabizikoentzat atletismo, eskubaloi, futbol eta pilotako ikastaroak eta kirol irakasle eta eskola kiroleko monitoreentzako erreziklaje ikastaro orokorrak emango dira. Kirolarrien kasuan, berriz, aurretik aipatutako lau kirolak praktikatzen dituztenentzat ikastaroak antolatuko dira. Bigarren atal bonetan parte hartzeko gutxieneko adina 15 urtekoa da eta kirolariek bere maila tekniko, taktiko eta

fisikoa hobetzeko aukera izango dute".

Matrikulari dagokionez, Deba bailarako teknikoeak 10.000 pezetako matrikula ordaindu beharko dute eta kirolariek 7.500 pezeta (bietan ere bazkaria barne). Deba bailarako monitore zein kirolarientzat prezio merkeagoak jarri dira eta argibideak horretarako jarritako telefonoan (970 41 56 22) edo Bergarako Kirol Zerbitzuan bertan, Udaletxean (77 91 67) ja-

so daitezke. Parte hartzeko eskatzen den baldintza bakarra 15 urtetik gorakoa izatea eta hobeto ezagutu nahi den kirolarenganako zaletasuna izatea da.

Lau herritan

Bailara mailako ekimena izanik, lehen aipatutako ikastaroak ondorengo herri hauetan emango dira: atletismoa eta futbola Eibarren, pilota ikastaroa Arrasaten izango da, irakasle eta monitoreen erreziklaje Mutrikun eta eskubaloi ikastaroa, berriz, Bergaran. Ihardunaldiei hasiera emateko uztailaren 14ean, goizez, Iñaki Perurena harrijasotzaileak kirolaren etikari buruzko hitzaldia emango du Eibarren eta ostiralean, uztailak 18, kirolari gazteen esplotazioa izango da aztergai goizeko 10etatik aurrera Eibarreko Unibertsitatean. Ikastaroak emango dituzten kirolari eta entrenatzaileen zerrenda osatzeke dago oraindik baina Ugarteburuk azaldu digunez, "plantel ona osatuko dugu eta egunotan lan horretan gabiltza. Besteak beste, David Rodriguez eta Gurutz Aginagalde



Bergaran eskubaloi ikastaroa egingo da eta, besteak beste, teknika eta taktika aztertuko dira.

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxe: 76 04 77

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorenzo, 25 BERGARA

Aldoka

Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

UDA KANPAINA ERE MARTXAN

Kirola egin eta ikasteko aukera ez da Udako Kirol Eskolarekin amaituko. Urtero moduan, Udaleko Kirol Zerbitzuak herritarrak Uda Kanpainan parte hartzera gonbidatu nahi ditu. Ohizkoa denez, aurten ere kirol eskeintza zabala osatu da eta haur, gazte eta helduek kirol ezberdinen artean aukeratu ahal izango dute. Horrela, 3 urtetik 5 urtera bitarteko haurrentzat igeriketa ikastaroak izango dira, 8 urtetik 14 bitartekoentzat aerobica, tenisa, jolasak edo eskalada ikastaroak antolatuko dira eta 14 urtetik gorakoentzat, besteak beste,

piraguismoa (Urkulun), jazz dantza, tenisa, igeriketa, eskalada edo mantenimendu gimnasia izango dira. Bestalde, abentura kirolak (rafting-a, kainoi jeitsiera, puenting-a, hidrospeed-a eta espeleologia hasiera) 16 urtetik gorakoentzat izango dira. Aurreko urteetan bezala, iharduera gehienak bi txandatan banatzen dira: lehen txanda ekainaren 23tik uztailaren 4ra bitartean izango da (izena emateko epea ekainaren 19an bukatzen da) eta bigarren txanda, berriz, uztailaren 7tik 18ra. Izena emateko epea astelehenean, ekainaren 2an,

zabalduko da. Bazkideei dagozkien beharpenak egin ahal izateko derrigorrezkoa izango da aurtengo karneta aurkeztea. Nobedade bezala, nagusiei zuzendutako multikirola (tenisa, igeriketa, saskibaloia, etabar) antolatu da aurten arratsaldeko 7etatik 8etara. Era berean, haurrentzako kirol eta jolasak (goizez 10etatik 12etara) izango dira aurtengo beste nobedadetako bat eta, azkenik, abentura kirolak Huescan eta Araban egiteko aukera izango da aurten. Abentura kiroleko iharduera gehienak egun konkretuetan egingo dira eta

eskubaloia jokariak, UPV-Barakaldoko prestatzaile fisikoa, SHEE-IVE-Feko irakasleak, Federa-

zioetako teknikoak, Xabier Leibar eta Josean Lekue kirol medikuak, futboleko lehen mailako

epaileak, goi mailako entrenadoreak, Deba bailarako teknikariak..., azken batean oso ondo prestatu-

ta dagoen jendea etorriko da ihardunaldiotan parte hartzera". Kirol bakoitzeko honako arlo hauek jorratuko dira: irakasteko metodologia, oinarritzko ezagutza tekniko-taktikoak, prestakuntza fisiko eta psikologikoa, kirol medikuntza, arautegia, etabar. Kirol irakasleen eta eskola kiroleko monitoreen erreziklajerako ikastaroan, berriz, taldekako eta banakako kirolen didaktika, kirolaurreko jokoak, elbarrituen kirola eta beste hainbat izango dira jorratuko diren gaiak. Ugartebururen usteetan, "ikastaroekin ez da erreza asmatzea. Interesgarriak iruditu zaizkigun ikastaro askok ez dute espero genuen erantzuna jaso eta beste batzuekin berriz alderantzizko sorpresa



Udako Kirol Eskolean parte hartzeko baldintza bakarra gutxienez 15 urte izatea da.

Garnish
Bitxitegia
San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Siaska
Dena zure haurrarentzako
San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibaloia edota ziklismoa kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzten ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

AKORT
Publizitatea

San Lorenzo, 7 behe. ☎ 76 50 39



Uda kanpainaren barruan, piraguismo ikastaroak izango dira.

bidaia ez da prezioan sartuko. Bestalde, haurrentzako igeriketa ikastaroetan hasiera batean txandá bakar baterako eman ahal izango da izena, horrela jende gehiagori parte hartzeko aukera emateko. Udaleko Kirol Zerbitzua aste honetan bertan hasi da Uda Kanpainako informazioa etxex-etxe banatzen. Diptikoa bere etxean jasotzen ez dutenek Kirol Zerbitzura, Udaletxera jo dezakete. Era berean, fetxa edota prezioei buruzko argibide gehiago nahi dutenek 77 91 67 telefonora dei dezakete.

bartu dugu. Oraingoan, ikastaroak bost egunetan zentratzea pentsatu dugu. Uda garaia ona izaten da borrelako ekitaldietarako: kompetizio gehienak amaitu dira ordurako, ikasturtea ere bai... esperientzia polita izan daitekeela uste dugu eta aurten jasotzen dugun erantzunaren arabera, datozen urteetan ere proiektu honekin jarraitzeko asmoa daukagu. Jendea animatzea eta parte hartzea, hori besterik ez da falta".

Iñaki Ugarteburuk gogoratzen duenez, "proiektu honekin bi helburu bete nahi dira: entrenatzaile, irakasle eta kirolarien prestakuntza hobetzea eta, aldi berean, Euskal Herri osoko kirolariei astebetetz euskararen eta kirolaren inguruan bizi izateko aukera

ematea. Horrela, ikastaroez gain, gauero ekingitza osagarriak antolatuko dira: dantzaldiak, diaporamak, txiste-kontalari eta bertsolarien saioak, kontzertuak, etabar. Ekingitza osagarri gehienak ikastaroak izaten ez diren herrietan izango dira: Oñatin, El-

goibarren, Deban...".

Azken batean, Udako Euskal Unibertsitatearen antzera, kirol ikastaroak antolatu nahi dira. Kirola eta euskara uztartuz, Euskal Herriko osoko kirolzaleak Deba bailaran bilduko dira uztailean. Adi kirolariok, Olinpiadak heltzeaz daude.

Helburua monitoreen prestakuntza hobetzea eta Euskal Herri osoko kirolariak euskara eta kirolaren inguruan biltzea litzateke



EZ EROSI ZURE PROGRESIBOAK ITSU-ITSUAN

Urrutira eta hurbilera betaurreko berekin bikain ikusteko ez dira aski kristal progresibo onak. Hoberenak behar dira: VARILUX, oso ongi graduatuak eta aditu batek egokitua: MULTIOPTICAS.

Horregatik, VARILUX MULTIOPTICASekin fidatzen da eta MULTIOPTICASek VARILUX gomendatzen du.

Ez erosi itsu itsuan.

19.500 pta.tik aurrera



MULTIOPTICAS kreditu txartelarekin ordain ezazu nahi duzun moduan eta unean.

VARILUX BEZALA, FIDA ZAITEZ MULTIOPTICASekin



MULTIOPTICAS

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA : Ibargarai, 16 - Tel. 76 15 75 - 20570 BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - Tel. 79 29 95 - 20500 ARRASATE
J. M. Barandiaran Enparantza - Tel. 88 99 88 - 20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR : Bidebarrieta, 2 - Tel. 20 05 22 - 20600 EIBAR

Egunkaririk irakurtzen duzu? Eta erosi? Zein da gehien irakurtzen duzun atala?



Manuel Moreno

Normalean ez dut ez irakurri ezta erosi ere egiten, baina Tavesako langilea naizenez, egun hauetan irakurri izan dut egunkaria, Bergarako karta batez ere.



Beatriz Esparza

Egin eta El Diario Vasco erosten ditugu eta atzetik aurrera hasten naiz irakurtzen. Bergarako eta Oñatiko kartak, kotilleoak eta kirolak irakurtzen ditut.




Andres Lopez

Bai, egunero erosten dut El Diario Vasco. Egunkaria lehenengo orritik irakurtzen hasten naiz, eta batez ere gizarte eta politika kontuak interesatzen zaizkit.



Maria Matilla

Senarrak edo semeak erosten dute egunkaria gure etxean. Politika arloko orriak dira gehien irakurtzen ditudanak.



Pablo Eskibel

Egunkaria erosi eta irakurtzeko ohitura daukat, batez ere El Diario Vasco. Azken orriari gainbegirada ematen diot lehenengo; gero, hasieratik irakurtzen hasten naiz.



Izaskun Iturbe

Etxean egunero erosten dute El Diario Vasco eta nik egunero irakurtzeko ohitura daukat. Azaletik hasi, eta periodiko guztiari ematen diot gainbegirada.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutzilatatu eta barnizaketa •

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23


GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK



Langabeziaren aurka

Aste honetan, zenbait sindikatuk, lanaren banaketaren aldeko manifestazioak egin dituzte. Bai Euskal herrian, bai Europan ere, langileen sindikatuak eta beren ordezkariak kalera irten dira egungo lan baldintzak eta langabezia tasa haundia salatzeko.

Eusko jaurlaritzak berak ere, langabeziaren aurka zerbait egiten duela adierazi nahi digu aspaldian; lan ordu extrem kontrako kanpaina publizitario bat hasi berri du asmo horrekin. Langabeziaren eta Pobreziaren Aurkako Plataforma Solidarioa deiturikoak ere, lan banaketa defendatzen du egungo langabezia, eta honek dakarren pobrezia eta ekklusio sozialaren aurka. Horretarako, Herri Ekimenezko Lege proposamen bat aurkeztu nahi dute Eusko Jaurlaritzan; baina hori egiteko, 30.000 sinadura behar dituzte.

Jadanik sindikatu denek sinatu dute Plataforma honek euskal parlamentuan aurkeztu nahi duen "Giza eskubideen aldeko Gutuna" deritzona. Gutun honek, langabezian egon arren, bizimodu duin bat izateko gizabanakoentzako "soldata minimo" bat aldarrikatzen du. Batez ere, guztiok dugulako bizimodu duin bat izateko eskubidea.

Politikoei ez zaie ekimen honen alde egiteko eskatu. Ez zaie ekimen horrendako behar diren 30.000 sinadura horiekin bat egiteko eskatu. Beraien egin beharra Legea parlamentuan eztabaidatua izan dadin lortzea litzateke. Momentuz, eta lan ordu extrem aurkako iragarkiak ikusi ondoren, Herri Ekimenaren antzeko bidetik doazela dirudi; baina, noski, politikoak, lehenik eta behin politikoak dira eta "gizurrak" esaten ohituak daude.

Badirudi lanaren banaketa dela egungo langabeziaren aurka dagoen erraminta bakarra; beraz, konfidantza izango dut, eta Herri Ekimenaren zenbait, puntu behintzat, onartuko dituztela sinistuko dut, besterik ezean.

Marijo DEOGRACIAS



Euskadi tropikalak

Bota piñue eta sartu palmerie! Hau izan behar genuke euskaldunon lema aurten udaberrian. Ez da besterik entzuten jendearen artean. Lurrikarek, hauteskondeek, garraiolarien borrokek eta beste hainbat gaik baino askoz eragin haundiagoa dauka eguraldi petral honek gugan. Eta ez da harritzekoa, denok baikaude nekatuta eta gogaituta bero honekin. Sirimirira, eurira eta hotzera ohitu ondoren, bero tropikal honek zeharo nahasten ditu gure buruak. Eta luzerako omen da, tenporak horrela gelditu baitira.

Asteartean bota zuen ekaitza, berriz, ederra izan zen. Oinaztu eta trumoi hotsa, euri zaparrada harekin, gustora hartu genuen asko izan ginen. Zerua gure gainera erori behar zela zirudien. Oinaztuek dena txikitu nahi zuten, bai eta euriak dena aurrean eraman ere. Baina horrelako ekaitz baten ondoren, dena lasaitzen da, baita gu geu ere. Badirudi gaitz guztiak urak eramaten dituela.

Bero sargoriak, zaparrada tropikalak... Euskal Herria tropikalizatu beharko genuke. "Hertzainak" aspaldi aurreikusi zuen gainera zetorrena. Euskadi tropikalak! Aurten udarako "hamaka" batzuk ipini goiko plazan, eta mojitoa tabernetan, eta Maria lorategietan.

Ainhoa LETE

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

INGELES FRANTSESA ALEMANA

Ekainaren 23tik uztailaren 11ra.

- GOIZEZ ETA ARRATSALEDEZ.
- ADIN GUZTIAK: HAUR, GAZTE ETA HELDU
- EGUNERO HIRU EDO LAU ORDU.

INFORMAZIOA:

Bergarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87



MATRIKULA ZABALIK! LANGABETUENTZAKO LAGUNTZA BEREZIAK

■ **XII. Literatur lehiaketa**

Zapatu eguerdian Udaleko Euskara Zerbitzuak deitutako **XII. Literatur lehiaketako sari banaketa** egin zen Zabalotegin. Aurtengo edizio`ra **231 lan** aurkeztu dira. Nagusien mailan **Jon Sanchezek** eraman zuen lehen saria (40.000 pezeta), **Roberto Izagirrek** bigarrena (30.000) eta hirugarrena **Jon Alvarezek** (20.000); **Mikel Larrañagak** berriz akzesit (8.000) bat jaso zuen. 1982-84 bitartean jaiotakoen artean **Goiatz Agirre** izan zen irabazlea (15.000



pta.), bigarren saria (10.000) **Eneritz Muguruzak** jaso zuen, eta hirugarrena (7.000) **Gorka Buruagak**. 1985-86koen artean, **Andoni Ezenarrok** lortu zuen lehen saria, **Soiartze Herasek** bigarrena eta **Ariane Menorrek** hirugarrena. 87-88koetan **Maite Plazaola** izan zen irabazlea, **Pello Mujika** bigarrena eta **Ander Amasorrain** hirugarrena eta, azkenik, 89 edo 90ean jaiotakoen artean **Gorka Artolak** irabazi zuen, bigarren **Mikel Igartua** geratu zen eta hirugarren **Jon Arrillaga**. Saritutako lanekin Udalak **liburutxo bat argitaratuko** du laister.



■ **Urrezko eztaiak**

Julian Azkarate eta Madalen Egiluz senar-emazte bergararrek ezkontza egunaren 50. urtemuga beteko dute **ekainaren 5ean** eta hori ospatzeko familiarrean bilduko dira mahaiaren inguruan domeka honetan Zumarragan. Julian eta Madalen, ezkondu bezain laister Zumarragara joan ziren bizitzera eta han oso ezagunak dira, Julian iturgina izan zelako eta Madalen, berriz, pelukera. Karmele Segura Azkarate bilobak hain dotore agertzen diren argazkia ekarri digu, eta berarekin batera testutxo bat.

Honela dio: *“Aitaita eta amama oso maitatuak dira Zumarraga, Urretxu eta Bergaran, beraien nortasun bereziak lagun asko izatearen zortea ekarri baitie. Berrogeitamar urte errez esaten da, baina bizkar gainean eramateak, askotan esfortzu baundia eskatzen du. Familiako kide guztiok badakigu azken urte hau ez dela nabi izan dugun bezalakoa izan, baina honelako momentu guztietan bizitzako egoera hoberenak gogoratzeko saiakera egin behar dugu. 50. urtemuga hau ondo ospa dezatela”*. Hala izan dadila.

ETXAGI
JATETXEA
 AFARIAK, BATAIOAK,
 JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
 MENUA, GOSARIAK,
 BAZKARIAK...
 Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
 Zubieta, 46 BERGARA
 ☎ 76 12 31

GUREN
PINTURAK
 pinturak eta paperak
 Irala kalea, z/g • 20570 BERGARA
 Tf. eta faxa 76 33 01

■ Sasoi onean

Zapatuan Udal Pilotalekuan Bolu eta Giartzu gimnasioek antolatutako aerobiton proban parte hartu zutenek sasoi ezinhobean daudela erakutsi zuten jendearean. Guztira, **200 bat aerobicizale** bildu ziren Frontoian (neskak nagusiki) eta,

Jon Aranbarri,
Santi Idigoras,
Idoia Moreno,
Genma Otaño,
Mari Carmen
Palacin eta Belen
Romon
monitoreen
aginduetara 2
ordu t'erdiz aritu
ziren. Hori
martxa hori!!



Zertan dihardute ba?



Benito Cantero Pol-Pol Argazki Taldeko kidea herriko onena izan da Kirol Argazkien VII. Lehiaketan, zuri-beltz zein koloreko kategorietan. Aurtengo edizioan 26 argazkilari izan dira lehian. Zuri-beltzean, Javier Ferreras Berangokoak irabazi du, bigarren saria Jose Ramon Larrañaga azpeitiarrak lortu du eta hirugarrena Laudioko Rafa Rivasek; koloretan, Jose Ramon Larrañaga izan da irabazlea, Juan Tolin zarauztarra bigarrena eta hirugarren Inaki Delgado donostiarra sailkatu da. Argazkirik onenak ekainaren 8ra arte Kultur Etxean ikusgai izango dira.

■ Billar irakaslea

Pablo Suarez 59 urteko billarreko munduko txapeldun ohiak erakustaldia eman zuen joan zen egunean San Joxepe Jubilatuen elkartearen. Suarez argentinarrak orain bi urte lortu zuen azken txapela



Filadelfian (zazpi aldiz izan da munduko txapeldun) eta orain, Erroman bizi dela, horrelako erakustaldiak ematen ditu urtean behin Estatuko hainbat elkartetan. Bergarara San Joxepe elkartearen eta Udaleko Kirol Zerbitzuaren eskutik heldu zen eta egunean eskuekin eta takoarekin duen abilezia erakutsi zien Jubilatuetan bildutako 25 bat laguni. Hala ere, **karanbola ikusgarriak hainbat kalerekin tartekatatu zituen**. Espero dezagun Jubilatuetako billar zaleek bere jokaldi onenak ikasiko zituztela...

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

ZUBIETA

elektragarritza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Fernan Kalboetxeaga

Bost urte Pizinetako tabernan lan egin ondoren, Fernan eta Valen Kalboetxeaga anaiek Biko bokategia zabaldu zuten joan zen otsailean. Bertan 9 lagun ari dira lanean eta Fernan eta bere lankideen bokadilo eta pintxo eskeintza oso zabala da.

- **Tabernako lanik atseginena?**

- Barran lan egin eta jendearekin tratatzea.

- **Eta gorrotagarriena?**

- Bijañteekiko tratua.

- **Lana, goizez, arratsaldez ala gauez?**

- Arratsaldez.

- **Astebukaeran zenbat bokadilo egiten dituzue?**

- 400 inguru. Pazkuetan, berriz, 2.000 egin genituen.

- **Ogitarteko bat?**

- Oilasko, york urdaiazpiko eta gaztarena.

- **Edari bat?**

- Ura eta ardoa.

- **Ardo on bat?**


- Viña Salcedakoa.

- **Nola ikasi zenuen sukaldaritza?**

- Amarekin, baina nire kontura ere ikasi dut.

- **Zure espezialitatea?**

- Tartak.



“Astebukaera batean 400 bat bokadilo egiten ditugu eta Pazkuetan, oster, 2.000 egin genituen. Edateko ura eta ardoa gustatzen zaizkit eta musikari dagokionez, Van Morrison”

- **Zein jatetxetan bazkalduko zenuke gustora?**

- Zuberotan.

- **Eta norekin?**

- Janaria apreziatzen duen norbaitekin.

- **Janaririk gustokoena?**

- Pasta freskoa.

- **Eta jan ezin duzun zerbaitez?**

- Gazta fuertea.

- **Asteko egunik onena?**

- Osteguna.

- **Eta txarrena?**

- Domeka.

- **Lanean musika ala telebista?**

- Musika.

- **Abeslari/musika talde bat?**

- Van Morrison.

- **Telebista programa bat?**

- *Caiga quien caiga.*

- **Egunakaria irakurtzeko ohiturarik?**

- Bai, aitak lagatzen didanean...

- **Gustoko filme bat?**

- *Pulp fiction.*

- **Hobby bat?**

- Motorra eta sukaldaritza.

- **Motorrean bakarrik ala lagunduta?**

- Taldean irten baina motorrean bakarrik.

- **Mania bat?**

- Askok dauzkate.

- **Zenbat ordu egiten duzu lo?**

- Zazpi bat.

- **Beldurra, zeri?**

- Bakardadeari.

- **Oporretarako toki bat?**

- Karibia.



IRAKASLE ESKOLA MONDRAGON UNIBERTSITATEA

IRAKASLE ESKOLAK zera jakinarazten du:
1997-98 ikasturterako aurreinskripzio-epea
zabalik dagoela honako karrera hauetan:

MAGISTERITZA

Espezialitateak:

... HAUR HEZKUNTZA

... HEZKUNTZA BEREZIA

... ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

HUMANITATEAK-ENPRESA Lizentziatura

Lizentziatura honek profesional gaituak sortu nahi ditu, pertsona eta erakundeen kudeaketa, zuzendaritza eta garapenean sortzen diren eskaera eta beharrei erantzuteko prestatuak.


INFORMAZIOA:

IRAKASLE ESKOLA

Tf. 71 41 57

20.540 Eskoriatza

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ETXEBIZITZA

Etxea salgai Mugertzan.
☎ 76 05 88.

Berrizteko dauden bi duplex salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 57 36.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 54 86.

Etxea salgai San Antonion. 2 ganbara. ☎ 76 46 22.

Apartamentua salgai Laredon. ☎ 76 44 34.

Gela bat konpartituko nuke. ☎ 76 91 33 (Iraide).

Pisua salgai Frontoian. 160 m². ☎ 76 24 42.

Duplex bat salgai. 190 m². ☎ 76 03 43 (gauzez).

Pisua salgai herri-erdian. Kontsultarako egokia.
☎ 76 25 31.

Pisua alokairuan ekainetik irailera Donostian, Amaran.
☎ 76 31 79.

Pisua salgai Martokuan.
☎ 76 15 49.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 42 65 (gauzez).

Pisua salgai Barrenkalean.
☎ 76 41 38.

Garajea alokairuan Ibargarain. ☎ 76 33 76.

Pisua salgai Mugertzan.
☎ 76 53 79.

Pisua salgai Zarautzen.
☎ 76 53 69/13 34 67.

DENETARIK

Bainuko altzariak oparitzen ditut. ☎ 76 44 34.

Salako armairua salgai.
☎ 76 39 75 (gauzez).

CD bat ahaztu nuen Euskadiko Kutzako kajeroan.
☎ 76 34 26.

Umeentzako kapota eta paseorako aulkia behar dut. ☎ 76 46 48.

Ume baten bizikletako jarelkua salgai. ☎ 76 20 32.

Arrasatetik Bergarara egunero 10:15etan etortzeko bi toki duen kotxea behar da. ☎ 75 17 50 (Iruñe).

Renault 5 GT Turbo kotxea salgai. ☎ 909 56 90 45/ 76 57 87.

Peugeot 205 kotxea (SS-AG) salgai. ☎ 71 61 21.

Motorreko kaskoa galdu dut Amillagan. ☎ 76 32 39.

Eskumuturrekoa galdu dut. ☎ 76 53 10.

Seaska berria salgai.
☎ 76 36 61.

Nissan Vanette furgoneta salgai. ☎ 76 07 61.

Renault 5 kotxea (SS-O) salgai. ☎ 76 10 91 (gauzez).

Zilarrezko giltzatak galdu da San Pedro eta Konde artean. ☎ 76 10 39.

Paparreko orratza topatu dut. ☎ 76 40 64.

LANA

Udan lan egingo nuke.
☎ 76 52 00.

Informatika klaseak ematen dira. ☎ 76 45 21.

Tabernan lan egingo nuke. ☎ 76 26 73 (Gloria).

Neska bat behar da andra bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 07 24 (gauzez).

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

Garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ 76 71 21.

Ume zaindaria behar da. ☎ 58 50 40.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut Bergaran.
☎ 76 33 26.

Emakume batek haurrak zaindu edo garbiketa lanak egingo lituzke. ☎ 76 19 74.

Irlandar batek ingeles klaseak gaztelerazkoekin trukatu lituzke.
☎ 907898339 (Catherine).

Andrea eskaintzen da sukaldari, garbiketa edo umezain lanetarako. ☎ 76 70 85.

Haur zaintzaile edo tabernari lanak egingo nituzke. ☎ 76 22 11 (Amaia).

Etxeko lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. Esperientzia. ☎ 76 70 15 (Betatik aurrera).

POL-POL**Taberna**

☎ 76 07 78

**LAGUN ARO**

ASEGURUAK

**AGENTEA-DELEGATUA****Ramon Iraegi Eguren**

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxe: 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBREZIBAR



Jokin Oregi

Jokin Oregik jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen jauregiaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Unzeta-Ruiz de la Prada** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Jokin Oregiri** eman dizkiogu. Zorionak!!

*Zein da auzo honen izena eta ze izen dute
asteburu honetan bertan ospatuko diren festek?*

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara


1	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	A ZE FLAXA ETXAGI	56	22	105	46
2.	ERROTAGAIN	49	22	95	61
3.	JAUJA OH ZEREZOS	45	22	101	60
4.	BAR CANALEJAS	38	22	74	68
5.	AZPEITXI JATETXEA	32	22	76	64
6.	ARLOTEAK/OILAGORRA	27	22	82	57
7.	MONGATXURRA	24	22	63	84
8.	PAGOMENDI	23	22	64	73
9.	OGIZUN	22	22	58	92
10.	BILBURBAREK OPEL/LAM	22	22	77	92
11.	ORTZI	21	22	47	68
12.	MADURA INDUSTRIAS GOI	0	0	0	0
13.	UFALA	0	0	0	0

2	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	ETXAGI	44	23	94	72
2.	AGIÑASPI	39	23	71	70
3.	ARTUSAMAK BERGATRANS	37	23	91	66
4.	HALTZARI	35	23	73	59
5.	KAYAK OS JARDINEIROS	34	23	86	71
6.	LA JUVE	33	23	92	60
7.	AGIRREBEÑA JATETXEA	33	23	77	67
8.	ERI	28	23	69	88
9.	EZINLEIKE	28	23	74	91
10.	SOROPOTROAK	23	23	51	55
11.	INDARGORRI	23	23	45	71
12.	AUTOBEREZI	22	23	84	115
13.	UVE BIKOITZA JAM	0	0	0	0

3	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	GUADALEST	55	23	78	35
2.	FAC	51	23	101	48
3.	NEKROFIKOS	44	23	99	89
4.	PJS	36	23	70	63
5.	TXIPIRON	32	23	73	70
6.	JAKINA PATXARAN TEAM	32	23	85	74
7.	MOSKIS	28	23	71	49
8.	IGANDEKOAK	27	23	53	80
9.	NAHIKARI HOOLIGANS	25	23	62	65
10.	GANBARA	25	23	56	87
11.	MRW	20	23	51	78
12.	EH BITERRAK	17	23	51	80
13.	CONSTRUCCIONES BERGARA	0	0	0	0

4	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	MANITOU	69	23	196	32
2.	ARBE KIROLAK	56	23	135	48
3.	MATXAKATEGI	42	23	94	62
4.	SLO	40	23	105	86
5.	ETENGABE	39	23	62	56
6.	KOMANDO PIPERRAK	28	23	79	107
7.	XURRUPAK	28	23	57	82
8.	PATA NEGRA	23	23	47	132
9.	PANORAMIX	23	23	80	88
10.	AMILOTX	19	23	43	79
11.	POLIDEPORTIVO TABERNA	16	23	48	145
12.	ALDOKA MALDOKA	8	23	50	88
13.	OSINTXU	0	0	0	0
14.	PITTIXAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Jose Luis Gomez
A ZE FLAXA ETXAGI

ZER MODUZ TXAPELKETA?

Harrituta nago egin dugun denboraldi onagatik. Play-offak partidu bakarrera dira eta edozer gauza gerta daiteke. Halere, txapeldun izatea espero dut.

ZUEN TALDEAREN GAUZARIK ONENA?

Guztioak joaten gabela jokatzera;

ETA TXARRENA?

Aurten dena ondo irten zaigu.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Ez.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Goizez, deskantsatuago izaten naizelako.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

A Ze Flaxa Etxagi, dudarik gabe.

JOKALARIRIK ONENA?

Jose Ignacio Luceño.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK

HANDIENA?

8 eta 1 Ogizuni.

ETA JASOTAKOAK?

8 eta 0 Azpeitxik.

ZE POSTUAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

Lehenengo postuan.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Guardiola.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Michael Jordan.

EUSKAL HERRIKOAK?

Olano.

JATEKO PLATER BAT?

Paella.

EMAITZAK

BILBURBAREK OPEL/LAM-OGIZUN	2-5
OGIZUN-ORTZI	1-3
AZPEITXI JATETXEA-PAGOMENDI	3-1
HALTZARI-ERI	3-3
SOROPOTROAK-INDARGORRI	3-1
ALDOKA MALDOKA-MANITOU	3-9
XURRUPAK-ETENGABE	1-2
ERROTAGAIN-MONGATXURRA	4-5
ERI-AGIÑASPI	1-3
ARTUSAMAK-AUTOBEREZI	15-1
ETXAGI-KAYAK OS JARDINEIROS	6-2
FAC-EH BITERRAK	2-2
TXIPIRON-GUADALEST	1-6
TXIPIRON-NAHIKARI HOOLIGANS	1-5
IGANDEKOAK-GANBARA	1-6
A ZE FLAXA ETXAGI-BAR CANALEJAS	4-2

PROMOZIOA ETA PLAY-OFFAK

LIGA TXAPELKETA AMAITU DA ETA BETI GERTATZEN DEN MODUAN TALDE BATZUK ZUZENEAN MAILAZ JEITSIKO DIRA, ETA BESTE BATZUK IGO; BESTE BATZUK IGOZTEKO EDO JEISTEKO PROMOZIOA JOKATUKO DUTE ETA MULTZO GUZTIETAKO ONENEK, GUZTIRA 16 TALDEK (LEHEN MAILAKO 8 LEHENENGOEK, BIGARRENEKO 4 ONENEK ETA HIRUGARREN ETA LAUGARRENEKO 2 ONENEK), TXAPELKETA IRABAZTEKO PLAY OFFAK JOKATUKO DITUZTE. BIGARRIN MAILATIK LEHENENGORA IGOZTEN DUTENAK ETXAGI ETA AGIÑASPI DIRA. ARTUSAMAK BERGATRANS-EK ETA HALTZARIK, BERRIZ, LEHEN MAILAKO ORTZI ETA BILBURBAREK OPEL/LAM TALDEEN KONTRA JOKATUKO DUTE PROMOZIOA.

AUTOBEREZI TALDEA, OSTERA, BIGARRIN MAILATIK HIRUGARRENERA ZUZENEAN JEITSIKO DA.

BESTALDE, HIRUGARREN MAILATIK BIGARRENERA IGOZTEN DUTENAK, GUADALEST, FAC, NEKROFIKOS ETA PJS DIRA ETA LAUGARREN MAILARA JEISTEN DENA EH BITERRAK.

AZKENIK, LAUGARREN MAILATIK HIRUGARRENERA, MANITOU, ARBE KIROLAK, MATXAKATEGI ETA SLO IGOKO DIRA.

ANTOLAKETA BATZORDEAREN ASMOA TXAPELKETA DATORREN ASTEBUKAERAN BUKATZEA DA.

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

17:00: ARTUSAMAK-ORTZI

18:00: BILBURBAREK OPEL/LAM-HALTZARI

Domekan barruan

10:00: MANITOU-ERROTAGAIN

11:00: A ZE FLAXA ETXAGI-ARBE KIROLAK

12:00: JAUJA OH ZEREZOS-FAC

13:00: PAGOMENDI-ETXAGI

16:00: MONGATXURRA-AGIÑASPI

17:00: AZPEITXI JATETXEA-HALTZARI

18:00: ARLOTEAK/OILAGORRA-ARTUSAMAK BERGATRANS

19:00: BAR CANALEJAS-GUADALEST

T XINPARTAK

Beti Bustiren 10. urteurrena

Beti Busti piraguismo elkarteak 10 urte bete ditu eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte domekarako Albinako urtegian. Camel Trophy piraguismo saioa eta eskimotaje ikastaroa izango dira. Kirola egin ondoren, parte hartzaileen gosea asetzeko, parrillada izango da. **Beti Bustikoek antolatutako ekitaldiak irekiak dira eta edonork har dezake parte. "Piraguarik ez duena ere etor daiteke guk lagako diogulako bat, gauza bakarra igeri egiten jakitea da"** adierazi dute Beti Bustikoek. Horretarako elkartekoekin harremanetan jarri edo Jabier Uribesalgoren telefonora (76 16 60) deitu daiteke. Albinara joateko goizeko 10etan Agorrosinen geratu dira Bergarako piraguiak.

Bergarako futbol talde nagusiak ezin izan zion mailari eutsi

BKEko preferenteko futbol taldeak maila galdu zuen joan zen igandean Pasaiaen aurka berdindu ondoren. Bergararrek partidu ona jokatu zuten, baina, alde batetik, zorte txarra eta, bestetik, arbitroaren jokabideak -bi jokalaria kanporatu zituen eta partidua arauzko denboratik 5 minutu luzatu zuen- bi puntu galtzea ekarri zuen. Partidua irabazi izan balu ere, taldeak ez zion mailari eutsiko, Beti Gazte taldeak Ilintxan irabazi baitzuen. Partidu bukaeran istiliuak igertatu ziren Pasaiaiko jokalaria batek ikuslegoa iraindu ondoren. Epaileak, bestalde, irain eta protesta ugari entzun behar izan zituen bere lan txarragatik ikuslegoaren aldetik.

Datorren urtean lehen maila erregionalean jokatuko du Bergarako talde nagusiak eta, gainera, zuzendaritza batzordeak taldea lagatzeko asmoa du. Izan ere, Iñigo Zaitegi buru duen zuzendaritza ba-



Domekan, ligako azken partidua Pasajesen kontra jokatu aurretik.

tzordeak 4 urte bete baititu eta hurrengo ekainaren 20an elkarteak egingo duen batzar orokorrean taldea lagatzeko asmoa azalduko du. *"4 urte bete ditugu eta kluba lagatzeko asmoa dugu. Oraindik ez da inor aurkeztu gure tokia betetzeko eta norbaitek elkarte hartzeko asmoa baldin badi, aurkeztera animatuko nuke lanerako jendea falta baita"* adierazi digu Iñigo zaitegik.

Hurrengo denboraldiari begira, ekainaren 20a baino lehen jokalariekin hitz egingo du Zaitegik euren asmoa jakiteko eta talde lehiakorra prestatzeko. *"Lagatzeko asmoa dugu eta ezin gara hasi entrenatzailea eta jokalaria berriak fitxatzen, lan hori direktiba berriak egin beharko du; baina batzarra berandu izango denez, gauza batzuk lotzen joan beharko gara"* esan digu Zaitegik.

Kopako txapeldunorde

BKEko emakumezkoen futbol taldeak ezin izan zuen zapatuan Gipuzkoako Kopa lortu, Dunboaren aurka penalti jaurtiketetan galdu baitzuen. Partidua Azkoitian jokatu zen eta arauzko 90 minutuak jokatu ondoren, bana berdinduta amaitu zuten. Bitxor Agirrebarrenaren jokalaria markagailuan atzetik joan ziren, baina Naiara Beistegiren gol bati esker, partidua berdintzea lortu zuten. Penaltietan, bergararrek 3 gol sartu zituzten eta Dunboakoek lau. Partidua ikustera bergarar ugari joan zen.



Futbito
NESKEN
TXAPELKETA

■ EMAITZAK

LTB-Potzu Ta Zapaburuak. **8-4**
The Hurricanes-Gu Geu. **0-3**
Blue Star-Power Rantxeras. **3-2**
Nahikari-Burdinezko D. **4-2**

■ PARTIDUAK

Potzu-The Hurricanes
Zapatua. 12:00. Miguel Altuna.
Nahikari-PWA
Zapatua. 12:00. Miguel Altuna.
Gu Geu-Blue Star
Zapatua. 13:00. Miguel Altuna.
Power-Burdinezko Damak
Zapatua. 13:00. Miguel Altuna.

■ KOMENTARIOA

LTB taldeak sendo darrai lidergoan. Gainera, Aitziber Montaña eta Silvia Valor, biak LTB taldekoak, golegileen sailkapenean lehenengo bi postuetan daude, abantaila haundiarekin. Bestalde, azkenengo partidua galdu arren, bigarren postuan Power Rantxeras taldeak jarraitzen du eta hirugarren, berriz, Potzu Ta Zapaburuak taldea dago. Asteburu honetan partidu garrantzitsuak jokatuko dira.

■ IPINTZAKO TXAPELKETA

Astelehenean, 19:15etan:
Manitou/Lam-Mongatxurra
Astelehenean, 20:30etan:
La Juve-Coar
Martitzenean, 19:15etan:
Altos Pornos-The Killers
Martitzenean, 20:30etan:
Bildurbarek Opel/Lam-Osintxu
Eguastenean, 19:15etan:
Facuta-Shaktale
Eguastenean, 20:30etan:
Matxakategi-A Ze Flaxa Etxagi
Eguenean, 19:15etan:
Ezinleike-Coar
Eguenean, 20:30etan:
Mongatxurra-La Juve

David L. Abetxuko

Ipintzako Futbol Txapelketan

David Lopez de Abetxuko aurten hasi da beste lagun batzuekin batera Ipintzako futbol txapelketaren antolaketa batzordean. Izan ere, aste-azken zehar arratsaldeko 7:15etatik aurrera futbolzaleek gustatzen zaien kirola egin ahal izan dezaten lan asko eta gehienetan esker gutxikoa egin behar dute antolatzaileek.

- Zenbat lagun zaudete antolaketa batzordean?

- 10 lagun inguru ari gara antolaketa batzordean lanean. Guztiok futboleko ibilitakoak edo behintzat futbol munduan jardundakoak gara.

- Denbora asko kentzen du horrelako antolaketa batek?

- Txapelketaren egutegia osatzea nahiko zaila da eta arbitratzeko jendea topatzea ere asko kostatzen da. Gainera urtero arbitroekin izaten diren arazoak ez izateko, aurten pentsatu dugu arazoren bat izaten bada, txapelketa bertan behera lagatzea. Beste urteetan aritutako 4 edo 5 arbitro izango dira eta horiez gain, marrazain berriak sartu dira.

- Horrenbestekoa da arbitroekin duzuen arazoa?

- Zaila da arbitratzeko prest dagoen jendea topatzea, guztiak boluntarioak dira eta lehenago esan dudan bezela arazorik baldin badago txapelketa mozteko prest gaudete.

- Jende berririk sartu da antolaketa?

- Bai, ni neu berria naiz eta joan zen urteko antolaketa batzordetik, bakarrik 3 edo 4k jarraitzen dute.

- Aurten ba al dago berrikuntzarik?

- Aurten beranduago hasi gara eta aste bete lehenago bukatuko dugu.

- Jokalariak ondo portatzen dira?

- Normalean bai, baina jendeari ez zaio galtzea gustatzen eta gainera betikoak izaten dira. Ipintzan istiluak sortzen dituztenak, futbito txapelketan ere berdin ibiltzen dira.

- Izena eman duten taldeen artean fabrikatzaileak ba al duzue?

- Mongatxurra, Arlo-teak, Bildurbarek, A Ze Flaxa...; aurtengo sorpresa Manitou izan daiteke.

- Txapelketan baloi asko galtzen dira?

- Baloi bila ez dela joaten da arazoa. Aurten partidua hasi aurretik talde bakoitzari baloi bat emango zaio eta kanpora botatzen duenak baloi bila joan beharko du. Kasualitatez baloirik ez baldin badago, kanpora joan direlako, partidua moztu eta ekarri arte itxoingo da.



"Taldeen baloi bila joan behar dute".

"Arbitraiekin arazoak badaude txapelketa moztuko dugu"



Eskola publikoko ikasleak, 1975

Aste honetako erretratuan neska kuadrila ederra ikus dezakezue. Argazkia atera zenean, OHO-ko lehen edo bigarren mailan izango ziren eta bertan agertzen direnek 28 urte inguru edukiko dituzte gaur egun. Erretratu Poligonoko Eskolako gimnasioan aterata dago eta kurtso ezberdinetako ikasleak nahastuta agertzen dira. Horra hor euren izenak, ezkerretik eskumara:

Goian: Agurne Urkizu, Ana Marcos, Loli Heis, Monika, Mirari Coranti, Nerea Agiriano, Maribel andereñoa, Rosa Rodriguez, Marga Aguila, Vicenta Garcia, Mari Jose Salgado, Ana Trillo eta Rafi Salas.

Hirugarren ilaran: Clara Sanchez, Puri Diaz, Laura Santorcuato, Ana Luisa Sanz, Itziar Arzelus, Arantzazu Ugarteburu, Izaskun Irausegi, Encarna Murillo, Ana Sanchez, Iciar Paternain, Elena Pescador, Ana Mari Sanchez, Maribel Gil eta Nere Arietaleaniz.

Bigarren ilaran: Mari Carmen Jaso, Ana Sanchez, Maribel Medina, Esther Rodriguez, Marisol Sanchez, Rosa Escobar, Mari Jose Hervas, Rosa Ugalde, Beatriz Davila, Almudena Franco, Iosune Larrión, Raquel Jimenez, Rosario Martinez eta Carmen Pineda.

Aurrean: Ana Prieto, Irene Diaz, Miren Zubizarreta, Nerea Vicente, Beatriz Sanz, Pili Ruiz, Margarita, Mariasun Novoa, Mariasun Osuna eta Inmaculada Mateos.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

KONDE



PANADEROKUA

OKINDEGIA
(ESPEZIALITATE UGARI)

BERTAKO GOZOGINTZA

KAFETEGIA



*Ongi pasa Toki Ederreko
jaixak eta esiguzu bisita!
Atragein izango duzu!*

Ordutegia:
7.30 - 13.30 eta 16.30 - 20.30.
Arratsaldez ere ogi egin berria
Igandeetan, 8.00 - 13.00

Toki Eder plaza, 3.
Tf. 76 14 87.

IKASI AKADEMIA

UDA 97, ikastaro trinkoak

IKASTEKO LAGUNTZA

- Klase partikularrak uztail eta abuztuan
- Kabinete psikologikoa:
badakizu ikasten?
- Ikastaroak:
ikasketa teknikak: uztailean
5 orduko iraupena gutxi gora-behera

HIZKUNTZA DEPARTAMENTUA

- Ingelesa
 - Alemana
 - Frantsesa
- Ikastaro trinkoak: egunean 2-3 ordu

INFORMATIKA DEPARTAMENTUA

- Informatikarako sarrera
Windows 95
MS Office (Word 7.0, Excel 7.0,
Acces 7.0)
- Windows 95 - Internet
- Autocad - 12 eta 13. bertsioak
- Freehand / Photoshop / Coreldraw

Adi langileok!
Zuen ikastaroa debaldekoa
izan daiteke!

INFORMAZIOA: Bidekurutzeta, 3 -1. BERGARA Tf. eta faxa 943-76 40 33



JAKINA

AGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarro



Bainugelak, zeramika eta sukaldeak.

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga, 10 behea.

Telefona: 76 03 30. Faxe: 76 02 91



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR

Sukaldeko altzariak

